

EAEko gazteen erdiek baino gehiagok diotenez, liburuak irakurri ohi dituzte denbora-pasa; neskek mutilek baino hein handiagoan

Irakurle gazteen ehunekoak gora egin du nabarmen azken bost urteotan, bereziki emakumeen artean, Gipuzkoan eta 15 eta 19 urte bitartekoengan

Liburuaren Mundu Eguna dela-eta, *Euskadiko gazteak 2012* azterlaneko datu batzuk aurreratuko ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#), liburuak irakurtzeari buruz. EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 laguneko laginari martxoan egindako inkesta batean oinarrituta prestatu da azterlana.


Inkestako datuen arabera, gazteen %54k diote azken hilabeteen libururen bat irakurri dutela denbora pasatzeko (lana edo ikasketak direla-eta irakurri ahal izan dituztenez aparte).

Lanarekin edo ikasketekin lotuta ez dauden liburuak irakurtzea ohikoagoa da gazteen artean EAEko biztanleria orokorrarengan baino (%41, [Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioak, 2010-2011ko Kultura-ohiturei eta praktikei buruzko inkestan](#) argitaratutako datuen arabera).

Emakume gazteen artean (%65) ohikoagoa da denbora pasatzeko irakurtzea, gizon gazteen artean baino (%43). Era berean, ohikoagoa da arabar gazteen artean (%60), Gipuzkoako edo Bizkaiko gazteengan baino (%56 eta %50, hurrenez hurren). Adinaren aldetik, ordea, ez da alde handirik nabari.

Aisiarako irakurtzen dutenen ehuneko hori bereziki altuagoa da duela bost urte kolektibo berarengan antzemandakoa baino (%45), [Kulturaren Euskal Behatokiak](#) Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistiketan (2007-2008) emandako datuek aditzera ematen dutenez.

Aisialdian irakurtzen duten EAEko gazteen eta osatzen dituzten taldeen ehunekoen bilakaera 2007tik 2012ra



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, bere datuak (2012) eta Kulturaren Euskal Behatokiak emandakoak (2007/2008) oinarri hartuta

Kolektibo bakoitzean antzeman den bilakaera aztertuz gero, zera ikus daiteke: igoera orokorra izan dela hiru lurraldeetan, Arabak ohiko irakurleen ehunekorik handiena izaten jarraitzen badu ere. Bizkaia, ordea, ehunekoak gora egin arren, irakurri ohi duten gazteen ehunekorik apalena du. Nolanahi ere, Gipuzkoako gazteengan igo dira gehien irakurzaleen ehunekoak.

Bestalde, aisia-arrazoiengatik irakurtzen dutenen ehunekoak igoera handiagoa izan du emakumeen artean (duela bost urte baino 16 puntu gehiago), gizonen artean baino (hiru puntuko gorakada baino ez).

Datuak adinaren arabera aztertuz gero, gorakadarik nabarmenena gazteen artean, hau da, 15 eta 19 urte bitartekoen artean egon da (%36tik %52ra). Gainerako adin-taldeetan igoerak ere azpimarratzekoak izan dira, baina ez gazteen artean bezain handiak (20 eta 24 urte bitartekoen artean, %47tik %54ra igo da, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, %49tik %54ra).

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

